


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXI

SAN SEBASTIÁN 15 DE SEPTIEMBRE DE 1914

N.º 1112



JOSE ZAPIRAIN TA IRASTORZA

Euskal-itz jostaldien batzarreko laguna.

† 1914.-KO ABUSTUA-REN 27.-AN

JOSE ZAPIRAIN TA IRASTORZA

EUSKAL-ITZ jostaldien batzarreko lagunik zarrenetakua zan. Lenda-biziko Donostiyan euskera-ren alde zerbait egiten sayatu ziranian, etzan atzera gelditu, ta pozik eta gogotsu euskal billaldietara jauten zan alik eta geyena Euskal erria-ren alde egin nayian.

Euskal-zale pizkorra bai zan gazte gaztetandik, eta gure izkera ta oitura maitagarriak biyotz barrenian ondo ondoraño sartubak zeukazkiyena.

Bersolari bikaña zan, ta euskal jai-aldietan koblakarien jolasak egin biar baziran, buru izango zan beti Zapirain, ta berak antolatuko zuben biar bezela indar-neurtzea alik eta egokiena gerta zedin.

Berak emango zuben asiera, esti ta apain, euskera-ren edertasunak asalduaz; gero zuzendari artakua bezela koblakari bakoitzari aginduko ziyon zer egin; ta azkenik emango zioten oña zorrotz eta yayua, bes-tiak erantzuteko beriala. Zer utza uzten digun aurrerako gai ontan. Makiñabat aldiz gogoratu biar degu Zapirain-tzaz, bertsolarien gudak zuzentzen diranian.

Ontaz gañera, Euskal-itx jostaldien batzarrean gogotik sayatzen zan alik eta geyena egiten gure izkuntza ta oitura zarren alde. Lenbiziko izango zan billaldietan, ta gazterik pizkorrena baño sutsuago asalduko zan beti zerbait egin nayian euskeraren aurrerapenarako.

Albistari au maite zuben bere biyotzeko kutuna bezela, etzekiyen zer egin geruago ta gorago ikustia-gatik. Arren eskuban zegonik etzuben egin gabe lajako. Bigaltzen zizkigun neurtitz ederrak: zer etzigan emango biyotza bera emana bazeukan.

¡Eta betiko galdu biar alako lagun atsegin, euskaldun pizkor, bertsolari bikain!.....

¡Jaungoikuak beregan dezala!

EUSKAL-ERRIA
